




Dena prest Tolosa itxuraldatuko duen festetarako

AURKEZPENA ▶ «Herritarren parte-hartze altua eta elkarlan bikaina» azpimarratu dute udal ordezkariak

GARRAIOA ▶ Sei egunetarako zerbitzu bereziaren berri eman eta «autoa uzteko deia» egin dute ▶ 3



Joselu Andueza, Andoni Iturzaeta eta Jokin Monfort, atzo. N. LATABURU

JOXEMI SAIZAR



‘Larru haizetara’ barre egiteko aukera

LEITZA ▶ Koldo Martinezen eta Patxo Telleriaren antzezlanak ikusgai, bihar, zinema aretoan ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

Pertza doinuak, Inauterien iragarle

Kaldereroak Anoeta, Irura, Ibarra, Tolosa eta Zizurkilen ▶ 5



Entseatzan, atzo. N. URBIZU

VILLABONA ▶

Urdapilleta etxean Haur Eskola egiteko proiektua onartu dute

«Gurea defendituko» dugu, dio Onddo Gazte Asanbladak erabakiaz ▶ 4

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Berria Txapelketan jarraitu nahian

Aurrera-Saiatz eta Aurrera, asteburuan ▶ 7

TOLOSA ▶

Emakumezkoen Ligako igoera fasean lehiatzen ari da Tolosa

Azken garaipenaren ostean itxaropentsu agertu da taldea ▶ 2

KULTURA ▶



Kultur Etxeko zeramika tailerrekiko ikasleek egindako erakusketa, Aranburu Juregian. JOXEMI SAIZAR

Matrikulazio datuak antzeko mantendu dira kultur tailerretan

«Leidorren hutsunea ahal den ondoen betetzea» izango da kultur arduradunen helburu nagusietako bat

IÑIGO ASENSIO

«Leidorren hutsunea ahal den ondoen betetzen saiatzea» da Tolosako Udaleko kultur arloko arduradunen asmo nagusietako bat. «Gero eta ikuskizun hobeak ekartzea» ere beren helburuen artean kokatu zuten, eta baita zine-klubarekin harreman «zuzenagoa» izatea interesgarria litzatekela onartu, 2005eko kultur balan-

tea egiterako garaian. Badakite, bestalde, «lan zaila» dela. Izan ere, Leidorretik Kultur Etxera igarotzean, ikuskizun eszenikoak jaitسي egin dira. Hala ere, «zifra txarrak» ez direla aipatu dute kultur arduradunek, kalitate aldetik onak izan direla gehituz.

Azken urteetako datuak aztertuz, joera desberdinak nabaritu daitezke kultur tailerren matrikulazio kopuruei dago-

kienez. Bai haurren eta bai helduen pintura tailerretan matrikulazioak igo egin dira, zeramika tailerretan kopurua berdin mantendu da eta antzerki tailerretan eta dantza garaikidean, berriz, kopuruak orokorrean jaitسي egin dira. Jaitسي naba nabarmentzen dantza garaikideak jasan du azken urtean, 22 matrikulatutik 8ra jaitسي. Baletak kultur tailer arrakastatsuen izaten jarraitzen du. Guztira dauden 308 matrikulaziotatik, 151 dituelako. Bere zifrak hazten joan ziren 2003. urtera arte, eta orduz geroztik indartsu mantendu da. Egur lantzea azken urteetan jaisten joan da, eta ehazirik ikastaroan, lehengo urteko kopurua jaitسي bada ere, aurreko urteetako kopuruak mantendu dira. Azkenik, argazkigintza ikastaroak, azken urtean ez bezala, taldea osatzea lortu du.

Kultur Etxeko gelen erabilera ez da, baina, tailerretara mugatu. Bestelako talde, elkarte edota ikuskizunek ere erabili izan dituzte aretoak. Hala nola, bizilagunen eta Tolosa Bizirik enpresen bilerek, Irazkiz antolatutako euskara ikastaroei, zine-klubaren proiektioek edota zenbait talderen asanbladek, besteak beste, bete dituzte Kultur Etxeko gelak.

GIZARTEA ▶

Bidaia antolatu du Harizpek Iparraldera

Gaur amaituko da epea martxoaren 21an izango den txangorako txartelak lortzeko

ERREDAKZIOA

Harizpe jubilatutako eta pentsiodunen elkarteak bidaia antolatu du Iparraldera datorren martxoaren 21erako. Txangoraren irteera goizeko bederatzietan izango da San Frantziskotik eta lehen geldialdia Biarritzen izango da. Bertatik Arrangoitze, Sara eta Senpereko lakua bisitatu ostean, Oartzunera joango dira Aduz Sagardotegian bazkaltzeko. Arratsaldean, Irun edo Hondarribia bisitatu dute Tolosara itzuli baino lehen. Bazkarirako aukeratu duten menua honakoa da: sarrera-koak, legatz budina, bakailo

tortilla, txekor okela, budina, izozkia eta kafea. Edateko ardoa eta sagardoa izango dute, eta bidaiaren prezioa 28 eurokoa izango da bazkide ez direnentzat eta 25 eurokoa bazkideentzat. Txartelak salgai izan dira azken asteotan eta gaur amaituko da hauek lortzeko epea.

Honez gain, Harizpe elkarteak bidaia gehiago prestatu ditu hurrengo hilabetetarako. Maiatzaren 15etik 29ra Lloreten antolatu du egonaldia, eta apirilaren 23tik 29ra Galizian. Informazio gehiago nahi izanez gero, Harizperen egoitzara jo daitezke (Emeterio Arrese) edo 943 65 49 15ra deitu.

FUTBOLA ▶

Aurrera doaz Tolosako neskek iguera fasean

Bi partidetan porrot egin eta gero lorturiko azken garaipenak esperantzaz bete ditu



Garaipena behar dute Tolosako neskek aurrera egiteko. HITZA

I. ASENSIO

Tolosa C.F. taldeko neskek aste batzuk daramatzate iguera fasea jokatzen. Orain arte emaitza bereziki onak lortu ez badituzte ere, tolosarrak gogotsu daude iguera aukerari begira. Jokatu dituzten hiru partidetan oso joko ona erakutsi dute, baina ez da nahikoa izan, eta lehen bietan porrot egin dute. Jokatutako azken partidetan Mutrikuren aurka garaipena lortu zuten

Liernik luzapenean lorturiko golarekin. Mutriku bezalako etsai indartsua gainditu izanak esperantza berriak eman dizkie Tolosako neskei eta, gauzak horrela, larunbat honetan Beti Onak taldearen aurka neurtu beharko dituzte indarrak. Tolosarrei garaipenak besterik ez die balio hemendik aurrerako partidetan. Usabal futbol zelaian izango da Beti Onak taldearen aurka norgehiagoka garrantzitsua hau, 15:30ean.

 FORMAKUNTZA IKASTAROK (Langileentzat) KUALIFIKAZIO PROFESIOALEN SISTEMA – KATALOGO MODULARRA			
IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
Etxebizitzetako instalazio elektrikoak	60	2006-03-06	18 - 21
PLC-en programazioa (SIEMENS S-7)	60	2006-03-06	18 - 21
CAD 2D (Autocad)	40	2006-03-13	18 - 21
Berokuntza-instalazioak muntatzea	40	2006-03-13	18 - 21
Roboten programazioa (ROBOTIKA)	20	2006-03-20	18 - 21
CNC tornuko makinaren prestaketa eta programazioa	40	2006-03-20	18 - 21
Aire girotuko instalazioak muntatzea	40	2006-03-26	18 - 21
Arteztoko makina zilindriko mekanizazioa	30	2006-03-26	18 - 21

Matrikula eta informazioa: Telefonoa 943 65 11 47 - Santa Luzia, 17 - 20400 TOLOSA
idazkaritza@tolosaldea.com • www.tolosaldea.com

INAUTERIAK ▶

«Herritarren parte-hartze altuagoarekin eta elkarlan bikainarekin», guztia prest

Ostegunean hasiko dira Inauteriak ; 173.000 euroko aurrekontuarekin, «adin guztientzako egitarau oparo eta zabala» aurkeztu dute, sei egunetarako

NOELIA LATABURU

Ez dute inolako kexarik aurtengo Inauterien antolatetaren gainean Festa Batzordeko kideek, ez eta udal ordezkariak ere. Talde ezberdinekin lortutako «elkarlan ezinhobeari» esker, astebete barru bete-betean izango ditugun jai herrikoiak prest dituzte dagoeneko: Inauteriak. Hala jakinarazi zuten, atzo, udaletxean eginiko aurkezpenean udal ordezkariak. Egitarau oparoa antolatu dute, adin guztiei zuzenduta. Datuak ere «oso baikorrak» dira, iaz baino 30 talde gehiagok eman baitute izena karrozeta eta konparten lehiaketan.

«Inauteriek dituzten hiru funtsei eman nahi izan diegu garrantzia bereziki», azaldu zuen Kultur zinegotzi Andoni Iturzaetak. Hau da, txarangei, herri partaidetzari eta zezenei. Horretarako, 173.000 euroko aurrekontua izan du Udalak, «eginiko esfortzua argi geratu» delarik. 23 txaranga ariko dira, bakoitza 25-30 musikaririkin. Denen artean, bada, 36 irtenaldi egingo dituzte. Hauek dira, banan bana, parte hartuko duten txarangeak: Aiz-Orratz, Arco-Iris, Kabilia, Sukalde, Txapel Haundi, Urdiña Txiki, Alcoyano, Pintxana, Poca Tripa, San Esteban, Tolosano, Berazubi, Ero-Etxe, Iurre, Kabi-Alai, Kaioia, Terete, Txinparta, Iraunkorak, Oriako txaranga, Incansables zaharrak eta Bonberenea. «Bonberenea lehen aldiz irtengo dira, gauero bi txaranga aritzea lortu dugularik». Herri partaide-



Joselu Andueza, Andoni Iturzaeta eta Jokin Monfort, atzo udaletxean, Inauterien aurkezpenean. N. LATABURU

«Utzi kotxea eta erabili garraio publikoa»

Garraio publikoaren aldeko dei berezia luzatu zuen Joselu Andueza Garraio eta Ingurumen zinegotziak, bereziki bisitariak zuzendutako. Mugikortasun Planarekin aurrera jarraituz, zerbitzu oparoa eskainiko du Udalak, tren nahiz autobus aldetik. «Gure deia jendeak kotxea utzi dezala da, eta garraio publikoa erabili dezala; izan ere, aukera asko dituzte».

Tolosako hiribusa, esaterako, bere orduetgia luzatuko du; hala, 22:00ak arte izango dituzte herritarrek aukeran. Kalderero egunean, Ostegun Gizenean, Ostiral Mehean eta

Zaldunita Bezperan azken deia egiten duen TST autobusak ere izango ditu zerbitzu bereziak egunotan. Autobusak ez ezik, trenak ere izango dituzte aukeran kanpotik Tolosa bisitatu nahi dutenek. Izan ere, Renfek igandarako, astelehenerako eta asteartarako gaueko zerbitzuak jarri ditu. Horrela, Brinkola norabidean joan nahi dutenek 02:00etan, 03:50etan eta 05:20etan izango dituzte trenak. Irun aldera joan nahi dutenek, berriaz, 01:00etan, 03:00etan eta 05:00etan izango dute zerbitzua. «Aukera zabala da, beraz, kotxea alboratzeko». ◀

Zaldunita Bezperan azken deia egiten duen TST autobusak ere izango ditu zerbitzu bereziak egunotan. Autobusak ez ezik, trenak ere izango dituzte aukeran kanpotik Tolosa bisitatu nahi dutenek. Izan ere, Renfek igandarako, astelehenerako eta asteartarako gaueko zerbitzuak jarri ditu. Horrela, Brinkola norabidean joan nahi dutenek 02:00etan, 03:50etan eta 05:20etan izango dituzte trenak. Irun aldera joan nahi dutenek, berriaz, 01:00etan, 03:00etan eta 05:00etan izango dute zerbitzua. «Aukera zabala da, beraz, kotxea alboratzeko». ◀

Tolosako hiribusa, esaterako, bere orduetgia luzatuko du; hala, 22:00ak arte izango dituzte herritarrek aukeran. Kalderero egunean, Ostegun Gizenean, Ostiral Mehean eta

Zaldunita Bezperan azken deia egiten duen TST autobusak ere izango ditu zerbitzu bereziak egunotan. Autobusak ez ezik, trenak ere izango dituzte aukeran kanpotik Tolosa bisitatu nahi dutenek. Izan ere, Renfek igandarako, astelehenerako eta asteartarako gaueko zerbitzuak jarri ditu. Horrela, Brinkola norabidean joan nahi dutenek 02:00etan, 03:50etan eta 05:20etan izango dituzte trenak. Irun aldera joan nahi dutenek, berriaz, 01:00etan, 03:00etan eta 05:00etan izango dute zerbitzua. «Aukera zabala da, beraz, kotxea alboratzeko». ◀

tzarekin ere «oso pozik» azaldu dira; aurtengo 15 karroza, 28 plataformadun konpartsa eta 102 konpartsa ariko dira kaleak alaitzen.

Bestalde, Ostegun Gizenean haurrei zuzendutako zezen txikiak ekarriko dituzte eta ostiraletan, berriz, zezentxoak eta zalditxoak. Hiru egun nagusietan «helduen modukoentzat eta jende gehiago zezenaren aurrera jar dadin, oso handiak izan gabe». Datorren astelehenean, asteartean eta asteazkenean, 17:30etik 20:30era zezen-plazako leihatilan izango dira erosgai sarrerak. Eta egunean bertan, 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik aurrera. Zezenen ondorengo kalejira Triangulora heltzen denean, Gaztelako arkutik eta Korreo kaletik barrena igaroko da dantzaldia. Era honetan, arratsaldeko karrozek eta konpartsek Gorosabel kalea libre izango dute.

Errotazio sistemak darrai

Danborradak lagunduko duen batukadaren eta txarangen beraren kortxeek osatzen dituzte gehienbat egun ero hauen doinuak. Hala eta guztiz ere, konzertuek ere izango dute tartarik: Zaldunita gauean La lengua de trapo izango da eta Astelenitan Abiba diskojaia; biak ala biak, Plaza Berrian. Bestalde, barraken eta txosnagunearen arteko errotazio sistemak aurrera darrai, «aurreko urteetan emandako emaitza ona dela eta». Honenbestez, txosnak Euskal Herria plazan egongo dira karpa handi batean eta barrakak, berriz, Artxi-boaren atzealdean.

Herriko berritze lanek ere izango dute eraginik Inauterietan; Leidor aretokoek, esaterako, Ostiral Meheko jaialdia zein biharko haur jaialdia Beotibar pilotalekura igarotzea behartuko dute eta Solana kalekoak Triangulotik aterako dira eta Korreo kaletik eta kale Nagusitik berrena udaletxera iritsiko dira. «Aukera zabala da, berriaz, kotxea alboratzeko». ◀

▶ **hilberriak** ▶ **urteurrenak** ▶ **eskertzak**

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK Telf.: 943 65 56 95
19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldeko hitza.nfo

hilberriak ▶

Gaizka Agoues Izagirre



Ez haiz urrunduko, ez baihaugu ahaztuko.

87. urteko Salbatore Mitxelena hire ikaskideak

ZARAUZ, 2006ko otsailaren 17a

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Zabortegiari irtenbidea, errausketarik ez!

Otsailaren 4an Errenteria-Ore-retako Beraun auzoko hainbat bizilagunek manifestazio bat antolatu zuten San Markos zabortegia berehala ixteko eskatu. Normala da, urte asko baitaramate horren ondorio latzak pairatzen, eta ez daude prest horrela jarraitzeko.

Egoera honen aurrean hauxe adierazi nahi dugu: zabortegiaren arazoa hondakin solidoak kudeatzeko politika era-

bat okerraren ondorioa besterik ez dela. Eta kudeaketa hori sustatu dutenek dute erantzukizuna hein handi batean, egoera bere horretan uzteagatik orain arte, arazoari irtenbidea bilatzeko lehenago ez mugitzeagatik.

Horregatik beraien jarrera salatu nahi dugu, orain ematen baitu oso solidarioak direla Beraungo bizilagunekin, eta lau haizetara zabalzen dute zabortegia ixtearekin erabat ados daudela; gainera, horretarako egiten diren manifestazioetan agertzen dira eta guzti! Lotsagarria benetan! Non zeuden orain arte, ba? Zer egin

dute zabortegiaren itxiera ahalbideratzeko? Zer alternatiba ematen digute orain? Errausketa? Kontuz gero, hauek ziria sartu nahi digute-eta!

Toki askotan erraustegiak ixten ari dira sortzen dituzten kalteengatik: gas toxikoak eta dioxinak isurtzen dituzte, hondakin toxikoak sortzen dituzte (hautsak)... Hortaz, hauts hauek botatzeko beste zabortegi bat behar da, San Markosekoa baino toxikoagoa oraindik, baina hau ez digute esaten, noski, interes ekonomiko handiak baitaude jokoan!

Argi dago zabortegia lehen-

bailehen itxi behar dela. Argi dagoena ere da zabortegia itxi baino lehen erabaki behar dela zer egin egunero sortzen dugun hondakin pilo horrekin. Badaude alternatiba askoz osasuntsu eta merkeagoak errausketa baino.

Alternatiba hauek ez dira berriak, toki askotan aplikatzen ari dira, emaitzak bikainak izanik. Sistema hauek ez dute azpiegitura handirik behar, eta ez dute horrenbesteko kalterik sortzen, ez pertsonen ezta ingurumenaren ere. Bakarrik behar da gauza bat martxan jartzeko: borondate politikoa. Hori besterik ez. Gainera, neurri hauek

abian jar daitezke oso epe motzean, hilabete batzuk barru... Alternatiba hauek jasota daude Errausketaren Aurkako Gipuzkoako Plataformaren Koordinakundeko kide batzuk landu duten Plan Alternatiboa delakoan.

Hau guztiagatik, zabortegiari irtenbidea eskatzeko, eta pertsonen eta ingurumenaren aldeko hondakinen kudeaketaketa egoki bat aldarrikatzeko, denok larunbateko manifestazioa! Zabortegiari irtenbidea bai, errausketari ez!

TERE SOTO ▶ ERRAUSKETA
AURKAKO GIPUZKOAKO
PLATAFORMAREN IZENEAN

ANOETA ▶ KULTURA

Dantza-sokan aritzeko eguna iritsi da azkenean

Bihar, goizean goiz baserrietara abiatuz ekingo diete egun guztiko ekitaldi ugari

ERREDAKZIOA

Hainbat astetan entseguak egiten jardun ondoren, heldu zaie dantza-sokan parte hartuko duten dantzariak ikasitako erakusteko garaia. Eta, nola ez, egun ederra pasatzeko unea ere. Bihar izango dute, hain zuzen, horretarako aukera. Anoetarrok Auzolanean herri plataformako kultura taldekoek antolatu dute eta 85 pertsona ariko dira dantzan, doinuak jarriko dituzten musikariek eta bazkaria prestatuko duten sukaldariek gain.

08:45etan bilduko dira herriko plazara parte-hartzaileak. Ordu laurden geratuko dute baserri abiatuko dira dantzariak eta txistulariak, traktore eta furgoneta gainean. Bi taldetan egingo dute goizekoa: erdiek alde bateko

baserriak eta beste erdiek beste aldekoak. Baserrietan axeri dantza, fandangoa eta arin-arina dantzatzeko dute.

Herrira 12:00ak aldera iristea espero dute antolatzaileek. Bertan, denak bildu, eta talde osoa kalejiran abiatuko dira, herrian zehar. 13:00etan neskek egingo dute dantza herriko plazan eta orduan dantza-soka osoa bere horretan egingo dute. 14:00etan, Kuku elkartean, babarrun jatearen txanda izango da. 17:30ean mutilek egingo dute dantza-soka osoa.

Mutlen dantzaren ondoren, erromeria hasiko da herriko frontoian, Gazte Asanbladakoek antolatuta: trikitixa, edaria, taloak... Gauean, berri, Gaztetxean jarraituko dute festa eta gauerdian axeri dantza egingo dute.

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan 4 ordu lan egiteko. Eskarmentua duena. 635 74 52 91.
Zaintzailea. Alegian, arratsaldero 4-6 orduz adineko bi pertsona zaintzeko pertsona bat behar da. Harremanetarako telefona: 685 70 93 00.

Tabernaria. Goierriko taberna-kafetegia baterako pertsona bat behar da. Deitu 610 61 52 32 telefono zenbakira.

Zerbitzaria. Tabernarako zerbitzaria behar da Amasan.

Lanaldi erdia. Interesatuak deitu 943 69 12 10ra.

Iturgina. Iturgin lanetarako laguntzailea behar da. Deitu 656 41 68 08 zenbakira.

SALGAI

Kopisteria. Traspasoan edo salgai kopisteria, inprimaketa digitala, prezio onean. Tolosaldean. Deitu 615 73 61 85 zenbakira.

Lokalak eta garajeak. Leitzaan, lokalak eta garajeak salgai. Eraikuntza berria. Deitu 637 80 60 44 zenbakira.

VILLABONA ▶ HIRIGINTZA

Haur Eskolaren proiektua onartu dute

Urdapilleta etxea egokituko dute egitasmoa hartzeko; Onddo Gazte Asanbladak «gurea defenditzeko» asmoa azaldu du

IMANOL GARCIA

Villabonako Urdapilleta etxean udal Haur Eskola egiteko proiektu teknikoak onartu zuen aho batez udalbatzarrek herenegun egindako osoko bilkuran. Hurrengo pausoa proiektua gauzatzeko diru kopurua ematea izango da, eta hori Udalaren aurrekontu orokorrak onartzearekin batera gertatuko da. Izan ere, Udal gobernuak aurrekontu sail bat gordeta du Urdapilleta etxea Haur Eskola bihurtzeko.

Egun Onddo Gazte Asanbladak eraikina okupatuta du. Udala eta Onddo hainbatetan bildu dira Gaztetxearentzat leku bat topatzeko. Herenegun egindako osoko bilkuraren ondoren ere bildu ziren bi aldeak. Bileraren emaitza lan talde bat osatuko dutela izan da eta alde bakoitzetik hiru kide bidaliko



Urdapilleta egun okupatuta dauka Onddo Gazte Asanbladak. HITZA

dituzte. Datorren astean egingo dute hurrengo bilera.

Bakartxo Tejeria alkateak HITZARI azaldu dionez, «guztietzako gustuko konponbidea topatzea da gure helburua». Haur Eskola Urdapilletan jartzearen asmoa «aspaldiko» kontua dela azaldu du Tejeriak. «Etxea okupatu aurretik, bazekiten [Onddo Gazte Asanbladakoek] aurrerago Haur Eskolarako egokituko zela».

Onddo Gazte Asanbladakoek «gurea defenditzeko» nahia

azaldu dute, eta «irtenbide duinak planteatzen ez dituzten bertan» Urdapilleta etxean gelditzeko determinazioa agertu dute. «Ez dugu nahi Udalak Gaztetxe herri batean inbertitzea eta ez dugu sinisten egingo duenik. Guk badugu geurea, eta irtenbidea Haur Eskolarako alternatiba bilatzea dela ikusten dugu».

Gaiaren inguruan Udalarekin biltzeko asmoa azaldu dute, baina ezkor daude elkarriketak ekariko dituen emaitzekin: «Askotan aritu gara hizketan eta ez dute benetako irtenbiderik eskaini. Ez zaigu ondo iruditzen guri beste zerbait ziurtatu aurretik Urdapilletan beste proiektu bat gauzatzeko. Gaia luzatu nahian dabilta eta gu herritik ateratzeko asmoarekin».

IRAGARKIA

2006ko otsailaren 3ko Alkatetzaren Erabakikuntzak, Irurako Hirigintza Planeamenduzko Arau Subsidiarioetako 5 eremurako eta konkretuki [Isidro-Enea] 5 zonaldean Lurra S.L. sustatutako Xehetasunezko Azterketaren onartzea erabaki zuen.

Hori dela eta jendaurreko informaziorako guri ezartzen da, iragarki hau Gipuzkoako Lurralde Historikoko Alkateari Ofizialaren argitaratutako egunaren bigarreneko 15 egun eraginor iragan arte.

Irura, 2006ko otsailaren 13a.
Alkate-Lehendakaria.

SUKALDARIA

Tolosako taberna batean pintxoak eta bokata egiteko. Astean 20 ordu eta igandean jai.

Tel.: 660 178 183

VILLABONA ▶ ERAKUSKETA

‘Energia Bizi’, ikasteko erakusketa

Energia zentzuz erabiltzea helburu duen erakusketa irekia ikusgai

N. URBIZU

Pasa den asteartez geroztik Villabonak *Energia Bizi* erakusketa hartu du, Txistulari plazan, du Energiaren Euskal Erakundeak (EEE/EVE) eta Eusko Jaurilaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak antolatua.

Erakusketaren helburua energiaren zentzuzko erabileraren aldeko jarrera sustatzea da, energia berriztagarrien

erabileraren eta energiaren aurreztearen bitartez, dena modu atseginez, beti ere.

Hortaz, izaera ludiko eta didaktikoa duen erakusketa ibiltari honetan ikus-entzunezko emanaldiak, maketa eta tailer elkarreragileak edo interaktiboak eskura dauzka bisitariak: probatzeko, ikusteko eta behatzeko, alegia.

Horretan ari dira Jesusen Bihotza Ikastolako ikasleak eta bertan ematen diren gaiekin

loturik partaidetza handiz ari dira EVEk antolaturiko energia aurrezteko eta berriztagarriak ezagutzeko kanpainan. LHko 3. mailatik DBHko 2. mailara bitartekoek adi entzunez eta saiakuntzetan parte hartuz, «etorkizuna energia iturri berriztagarrietan dagoela» barneratzen ari dira.

Ikusgai izango da hilaren 20ra arte, 10:00etatik 13:30era, eta 16:30etik 19:00etara bitartean.



Jesusen Bihotzako ikasleek ederki pasa zuten erakusketan. HITZA

INAUTERIAK ▶

Kaldereroak, Inauterien iragarle

Ijitoz jantzita eta zartagiak eskuetan ariko dira Tolosaldeko hainbat herritan

NEREA URBIZU

Iritsi da dagoeneko Kaldereroen eguna. Hainbat herritan ospatu ohi da egun hori, eta Tolosaldeko hainbat txokotan ere ordu eta modu ezberdinetan egingo dute. Inauteriak datozela abisatzera iritsiko dira beste behin gure herrietara. Hauek dira prestatu dituzten ekintzak, herriz herri:

Anoeta eta Irua. Aurtengo berrikuntza bezala, Kaldereroak Anoetatik aterako dira eta Iruara joanen dira. 18:00etan ateratzeko asmoa dute, herriko plazatik. Euria eginez gero, 18.30ean Iruako plazan elkartuko dira. Jende asko biltzea espero dute.

Ibarra. Hainbat entsegu egin dituzte astean zehar biharkoan dena ongi atera dadin. Hala, 18:30ean elkartzeoko dira, plazan. Eskatzen den bakarra ijitoz jantzita eta zartariak eskuetan ateratzea izan da, Inauterien etorrerak zaratatsua behar omen du izan.

Tolosa. 10:30ean hasiko dute jardunaldia, erraldoi eta buruhandiekin, plaza Zarratik aterata. 15:00etan haurren

Txantxo Lehiaketa izango da Zentro Sozio-Kulturalean. Handik ordubetara Aiz-Orratz txaranga irtengo da elkartetik bertatik. 16:30ean, elkarteak antolatutako haur jaialdia izanen da Beotibarre, eta orduan emanen dute Txantxo Lehiaketako irabazlearen izena. 19:30ean abiatuko da Kaldereroen konpartsa, Triangulotik.

Zizurkil. Gaurkoan, agudo aterako dira Zizurkil. Bazkaldu ondoren, 15:15ean, Pedro Maria Otaño eskolako ikasle nahiz lagunak aterako dira, eta herrian zehar ibiliko dira; entzulek Kaldereroen koplak aditze-ko aukera izango dute.



Iruako Kulturunean azken entsegua egin zuten atzo. N. URBIZU

ALTZO ▶

San Inazioak prestatzeko bigarren deialdia

Altzon jadanik hasi dira jaiak antolatzen, nahiz eta uztaila bukaeran eta abuztu hasieran izan. Festak prestatzeko bigarren bilera gaur egingo dute, 22:00etan, Elordi elkartean. Bilerak irekiak dira, eta «proposamen berriak nahiz ideia dibertigarriak jasotzeko prest» daude bertan.

ALEGIA ▶

Abian dira Alegiako festetako bilerak

Alegiako Karmenak prestatzen hastekoak dira Alegian. Horrexegatik, astearterako egin dute deialdia, hilaren 21erako, hain zuzen ere. 19:30ean elkartzeokoak dira, udaletxean. Festetarako bost hilabete falta badira ere, antolakuntza lanak eta egin beharrekoak «anitzak» izaten direla-eta egin diete herritar guztiei bilera joateko gonbita.

Amestu izan duzun...

MERKEALDIA

Premier koltxoia
Gama altuko koltxoia gerrialdeko errefortzuarekin

Serta

TIENDAS
bede
sueños de calidad
www.beds.es

%30 erabiliko **DESKONTUA**

Lizardi plaza, 2
20400 Tolosa
Tel.: 943 652 901

Peña y Goñi, 16
20001 Donostia
Tel.: 943 320 358

Tolosa etorbidea, 19
20018 Donostia
Tel.: 943 312 784

www.loaldiak.com

Bezero arreta telefonoa: 922 560 221
12 hilabeterainoko finantziazioa interesik gabe.
Kate aintzindaria atsedean arloan 192 DENDEKIN.

Kopiatu behar ez duzue eta berridatzen ez duzue. Argazkiak argazkilaria dira.

LIZARTZA ▶ INAUTERIAK

Kolorea eta eromena nagusi asteburuan

Bihar eta etzi izango dira Inauterietako egun handiak; tradizioari eutsiz, 'ijittoa' errez emango diete jaiari amaiera

EGITARRAUA ▶

BIHAR

07:00. Kalejira dantzari, txantxo eta txistulariekin.
07:30. Puske-biltze irteera dantzariekin eta txantxoekin.
09:30. Etxe-zahar baserrian geldialdia gosaltzeko.
12:00. Mozorro, gurdi eta txarangen irteera errotatik.
13:30. Kalejira, Arrateko zubitik irtenda.
18:00. Gurdi eta mozorroak Joxe Mariko aparkalekuan bildu ondoren, kalejira plazaraino. Sagardoa eta taloak jateko aukera, bertan.
Ondoren. Trikipoteoa.
21:00. Afaria Aztiñondo sagardotegian trikitilariekin.

ETZI

11:00. Txistulariek lagundurik, agintariekin eta dantzariekin Meza Nagusia. Ondoren, hamaiketakoa.
12:00. Dantzariak kalean ibiliko dira puska biltzen eta gurdi, mozorro eta gainerakoak kalez kale txaranga lagundurik.
13:00. Lizartzako Inauteri-dantzak herriko plazan.
14:00. Inauteri bazkaria herriko pilotalekuan.
Ondoren. Txaranga, dultzainero, jokua, dantza-soka, zozketa, sariak...
20:30. Plazan *Ijittoa* errez Inauterien amaiera.



lazko Inauterietan ikusi ahal izan zen gurdietako bat. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Pasa den larunbatean izan zen *epaiketan* deliberatu zuten bezala, igande honetan herritar guztien artean jango dute txekorria bazkari legean. Horrela gertatu zen antzina eta hori gogoratu nahi izaten dute lizartzarrek urtero antzerkia eginez Inauterien atarian. Hala, igandean herri bazkaria bai, baina beste hainbat ekitaldi ere izango dira herrian, eta baita larunbatean ere.

Bihar, goizean goiz ekingo diote festari, kalejiran irtengo baitira herritar txantxo eta txistulariekin festa hasi dela herrian zabaltzeko. Eguerdian eta arratsaldean koloreak nauterietako dira mozorroak jan-

tzita eta gurdiekin egingo duten kalejiran, eta ondorengo sagardo eta talo dastaketan. Koadrilen arteko afariaren ostean, Gaztetxeak antolatuta, 00:30ak aldera Laket trikitixa taldekoen emanaldia izango da. Gaztetxera mozorrotuta joatea jarri dute baldintza bezala, eta «festa goizalderarte luzatuko denez», herritar guztiak animatu nahi dituzte bertan parte hartzea.

Igande eguerdian, herriko dantzariak eskainiko duten dantza saioak azpimarratu behar dira; lehendabizi kalez kale ariko dira, eta ondoren plazan eskainiko dute saio berezia. Ohiko moduan herriko plazan *ijittoa* errez emango diote aurten Inauteriei amaiera.

BERASTEGI ▶

Arnedora irteera antolatu du jubilatuko elkarteak

Gaztainondo jubilatuko elkarteak Arnedora (Espainia) irteera antolatu du martxoaren 14an. 10:30ean irtengo dira Errioxa aldera, eta zapa-erakusketa bat ikusi eta gero Nuestra Señora de Vico monastegia bisitatuko dute. Ondoren, Hostal Venecia jabetxean bazkalduko dute. Izena eman nahi duten bazkideek 27 euro ordaindu beharko dituzte, eta 30 euro gainerakoek.

GAZTELU ▶

Gizarte zentroa inauguratuko dute etzi

Etzi izango da eskola etxearren (Seroretxe) eraikinean egin dituzten apartamentu babestuen eta gizarte zentroaren inaugurazioa. 12:00etan izango da ekitaldia, eta besteak beste, lunch-a, Ibarroko Alurr dantza taldekoen saioa eta txistulariak izango dira. Gazteluko Udalak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu «herriarentzat hain garrantzitsua den ekitaldian» parte hartzea.

BERROBI ▶ KULTURA



Adi egon ziren haurrak ipuin kontalariari entzuten. I. TERRADILLOS

Salto eta brinko zebilen txokolatea

Ederki igaro zuten atzokoan liburutegian bildu ziren herriko gaztetxoek Rai ipuin kontalariaren istorioekin. Hainbat ipuin kontatu zituen, eta horien artean, neska, hartza eta otsoarengandik ihesi salto eta brinko zebilen Koko txokolata tableta. Istori hori txikienei zuzendua zegoen, eta ondoren nagusiagoei zuzendutakoak ere izan ziren entzungai.

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

▶ DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

ARESO ▶

012 infolokal zerbitzuan sartuko da Aresoko Udala

Herritarren arretarako zerbitzu berri hau jarriko dute laster, udalbatzak onartuta

J. ASTIBIA

Aresoko Udalak jakinarazi denez, «udalbatzak onartu bezain laster», 012 infolokal izeneko telefonozko arreta zerbitzua jarriko dute.

Orain arte udaletzeko idazkaritzara joan beharra eragiten zuten hainbat eginbehar herritarrek telefono zenbaki horretara deituz egiteko modua eskaintzen omen du zerbitzu horrek: istantziak, eskaerak, iradokizunak, keak... egiteko baliaitu baitaiteke. Zerbitzu horrek Udalari bideratuko dizkio eskera guztiak.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**
 - Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ **DYA:** 672536
 - ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693990
- Garraioak.**
- ▶ Renfe Tolosa: 652889
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ **Taxia:** 670420
 - ▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016
- Besterik.**
- ▶ **Ertzaintza:** 538820
 - ▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858
 - ▶ **Tolargi:** 650016
 - ▶ **Iurramendi egoitza:** 670325
 - ▶ **Tolosa gasa:** 675320

LEITZA ▶ ANTZERKIA

JAIONE ASTIBIA

Bihar iluntzean beste antzerki emanaldi bat izanen dute ikusgai Leitzako zinema aretoan: *Larru haizetara* lana taularatu-ko du Ez dok hiru Bikoteatroak, 20:00etatik aurrera.

Ohiko duten moduan, Patxo Telleriak, obraren egilea ere badenak, eta Mikel Martinezek aurkeztuko duten lan honetan ere umorea izanen dute ardatz: bikote honek orain artekoan elkarrekin egin dituen lanen ezaugarri da egunerokoan sortzen diren egoerarik eta gertakariarik serioenetatik abiatuta ere, irribarra eragiten duten kontatzeko era, irudikatzen modua, lana egiteko gaitasuna erakutsi baitute.

Martinez-Telleria biko hau ezagun egin zen batez ere *Munduko euskaldunberririk zaharrenak, Euskara sentzilloaren manifestua...* moduko lanei esker; izenburuek adierazten duten moduan, sekula guztian euskaraz ikasten ari diren bi lagunek bizi dituzten egoerak antzeztu dituzte lan horietan, tartean-tartean hainbat egi eta galdera airean utziz...

Bada, lan horietako pertsonaia berak dira honetakoak ere, «baina denborak bere marka utzi die hauei ere», dio-

Serio-serio, baina 'Larru haizetara' joanez amaitu

Patxo Telleriaren eta Koldo Martinezen antzezlan ikusgai bihar zinema aretoan



Gai batekin edo bestearekin, umorea b(eh)arra-b(eh)arra. JOXEMI SAIZAR

tenez, eta euskara ez beste gai serio eta larri batekin datoz, «lan eskasia eta ezegonkortasuna salatu nahi dute»; gai serio bati buruzko hitzaldia entzuterako joateko «jendeak etxeko sofatik ipurdia altxatzea batera erraza ez dela» jakitun, «sexuaren trikimailua» erabili nahi dute «jendea erakartzeko»: *Larru haizetara* izenburua jarri diote lanari.

Beraz, obra honetan, betiko euskaldun berri hauek «beren lan egoera, gizartean txertatzeko aukerarik eza eta zailtasunak, entxufismoak...» hizpide izan nahi lituzkete, ez dute izenburuak iradokitzen duen horretaz hitz egiteko inolako asmorik, hori amua besterik ez zen...

Baina bi lagun hauek *obse-sionatuta* daude; subkontzientea gailenduko zaie eta sexu kontuak bata bestearen ondortik etorriko zaizkie gogora, «gai serioari» ia lekuri eman gabe: «Euskaldunoi, batez ere haiei biei, hainbesteko kaltea egin dien sexua» bihurtuko da ardatz, «salatu nahi duten gaitz sexualaren adibiderik argienak» berak izanik.

Bi hauekin, lau haizetara berrera egiteko aukera bermatuta dute Leitzaldera etortzen diren antzerkizaleek.

PILOTA ▶

Berria Txapelketako 2. kanporaketara doaz

Bi Aurrerak Lemoa eta Huarte dituzte arerio

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko eskualdeetatik Berria Pilota Txapelketan parte hartzen ari diren bi pilota elkarteek bigarren kanporaketa saioa jokatu dute bihar-ertzitan: Aurrera-Saiaz eta Aurrera dira, Bidegoiangoa eta Leitzakoa, hurrenez hurren. Final-laurdenetarako txartela dute jokoan. Lehendabizi jokatu dute: elkarrenak dira: bihar, 17:00etan, Lemoako pilotalekuan, han bertako elkartearen aurka, hiru mailetako partiduak jokatu. Pilota eskolatik jakitera eman dutenez, kadeteen mailan Oihan Alduntzin eta Josu Berjera bikotea ariko da, gazteen mailan, Aritz Sagastibeltza eta Zuhaz Beloki —aurrekoan Lansalot ari zuten atzelari—, eta helduetan Mikel Iriarte eta Patxi Betelu. Jardunaldi honetan ere, noski, hiru

partiduetan egiten dituzten tantuak batu eta gehien eskuratzen dituen taldeak jarraituko du lehian.

Aldaketan taldean

Etzi, berriz, Aurrera-Saiazen txanda izanen da. Kasu honetan, Huarteren aurka jokatu du, Hernaniko pilotalekuan, 10:30ean hasita. Bi talde hauen arteko, lehia «gogorra» izanen dela iragarri dute, eta gipuzkoarrek aldaketak egin dituzte taldean —elkarteen arteko txapelketa izanik, talde bakoitzak egoki iruditzen zaizkion aldaketak egin ditzake jardunaldi batetik bestera—. Helduen mailan, Beloso-Oteiza bikoak jokatu du, hain zuzen ere, Euskal Herriko Ligan bereziki mailan ari dena izaki; kadeteetan, Oizartabal eta Agirriarok jokatu dute; gazteenan, Irazustak eta Telletxeak.

LEITZA ▶ ZINEMA

'Una historia de violencia': zer pentsa eman lezakeen filma

J. ASTIBIA

Gaur 22:30ean eta etzi 19:30ean, *Una historia de violencia* filma botako dute Leitzako zinema aretoan, astero-ko egitarauarekin jarraituz.

Honetakoan, David Cronenberg zuzendari kanadiarraren lan hau dute aukeran zinezaleek. Kritikaren iritziz oso pelikula ona, banaz beste hiru-lau izarreko kalifikazioa eman diote-eta eta «ikusleari zer pentsatua» eragin diezaioketeena, gainera, euren ustez: «Gure ingurunean bortizkeria zer modutan txertatzen den irudikatzen du; maila guztietan nola (on)hartzten dugun, intimo eta banakoenetik hasi, familiako edota publikoago den arterainokora, bateratzen zailak diren arbuioa edota erakarpena eraginez».

Thriller dramatiko honetan, besteak beste, Viggo Mortensen, Maria Bello, Ed Harris, Wi-



Film hau Sitgeseko (Katalunia) Zinemaldian bota zuten. HITZA

liam Hart aktoreek egin zuten lan, honakoa kontatuz: Indianako (AEB) herri bateko jate-txe bateko jabeak, bere familiarekin bizimodu lasai eta zoriontsua daramanak, lapurretara sartu zaizkion bi gaizkile erahiltzen ditu. Eroitzat hartu eta komunikabideetako izar bihurtzen da ezustean. Ez-eroso, lehengo bizimodura itzultzen saiatuko da, baina berari aurre egitera, gizon misterioitsu eta mehatxagarrria iritsiko da hirira, haren ustez kitatzekoa duten kontu batekin.

